



TOLOSAKO
UDALA

TOLOSAKO UDALEKO TRAFIKO KOORDINATZAILE PLAZA ZERBITZU
EGINKIZUNETAN BETETZEKO DEIALDIA
AZTERKETAREN XEHETASUNAK ETA ZUZENKETA IRIZPIDEAK

.- LEHENENGO PROBA (TEORIKOA)

Lehenengo proba test motako 20 galdera- sorta bati idatziz erantzutea izango da. Galdera horiek hautaketa-prozesuaren oinarrien eranskinean agertzen diren gaien buruzkoak dira. Proba 0 puntutik 20ra baloratuko da eta ez da gutxieneko puntuaziorik atera beharko.

Proba hau egiteko **60 MINUTU** emango dira.

Honako zuzenketa- irizpide hauek erabiliko dira:

- Galdera bakoitzak lau erantzun- aukera izango ditu, eta horietako bakarra izango da zuzena.
- Epaimahaiak 20 galderetako bat edo batzuk baliogabetzen baditu, baliogabetutako galderaren edo galderen ordeztarberba- galderak jarriko dira.
- Ariketa gehienez 20 punturekin kalifikatuko da, eta ez da gutxieneko puntuaziorik atera beharko.
- Erantzun egoki bakoitzari puntu bat gehituko zaio, eta erantzun ez zuzen bakoitzak 0,25 punturekin zigortuko du. Erantzun okerren kopurua bider 0,25 eginda lortutako puntuazioa, erantzun egokiekin lortutako puntuari kenduko zaie eta eragiketa horren emaitzak zuzeneko puntuazioa emango du. Erantzun bat baino gehiago duten galderak erantzun gabekotzat joko dira. Erantzun gabeko galderak ez dira zigortuko.
- Ariketan gehienez 20 puntu zuzen lor daitezke. Izangai bakoitzak ariketan izango duen puntuazioa honela kalkulatu da: ariketan lortutako puntuazio zuzena (0 puntutik 20ra: puntu bat galdera egoki bakoitzeko ken akatsak.
- Izangaien anonimotasuna bermatuz egingo da zuzenketa.

.- BIGARREN PROBA (PRAKTIKOA).

Deialdiaren oinarrietan jasotzen den bezala, bigarren proban kasu praktikoa bat ebatzi beharko da, oinarrietan agertzen diren gaiekin zerikusia dutenak.



TOLOSAKO
UDALA

Proba hau egiteko **ORDUBETE ETA 45 MINUTU** emango dira.

Proba hau 0tik 20 puntura baloratuko da eta, gutxienez, 10 puntu lortu beharko dira.

Horiek zuzentzeko, kontuan hartuko dira, hautagaiaren ezagutza kasuari aplikatu beharreko araudiari dagokionez eta suposizioaren enuntziatuan deskribatutako gertaeretan aplikatzeko duen gaitasuna, ideien argitasuna, laburtzeko gaitasuna eta idatzizko adierazpenaren zuzentasuna.

Tolosan, 2024ko ekainaren 13an

EPAIMAHAIKO IDAZKARIA